

Liburuak

kri ti ka

Agur, Ama!

Yolanda Arrieta. Irud: Aitziber Alonso.
Ibaizabal, 2009.
23 orrialde. 7,7 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Ama joaten denean

“ANDRE BATEK EZIN ZUEN haurrik eduki” diosku Yolanda Arrietak ipuin honen hasieran, baina izenburuak berak ematen digu amatasun horren pista bat. Bai, andreak Basoko Andreak emaniko hazia erein eta zaindu egingo baitu, eta bertatik zer irten eta erdi lore, erdi ume bat, Lorea. Ipuinak, baina, ez digu andreaken istorioa kontatzen; ez, Lorea dugu protagonista eta “andreaken bizitza amaitzen” denean Loreak amaren mezu bat aurkitzen du: “Ekin zure bideari”, eta ibilbide inizatiko horretaz ari dira liburu egileak, horretaz eta heriotzaz.

Gure gizartean badira haurrei ezkututzen dizkiegun –edo ezkututzen saiatzen garen– errealitate batzuk; horietako bat heriotza dugu. Literaturan ere antzeko zerbait egiten da, eta horrela oso kasu gutxitan hitz egiten da heriotzaz haurrentzako lanetan (askotan, gainera, hildakoa animalia izan ohi da, edo aitona-amona zaharra). Arrietak eta Alonsok eskaintzen diguten lan honetan, aldiz, ama da hil egiten dena. “Lorea asko hazi da. Andreaken bizitza amaitu egin da” diosku idazleak esaldi tinko eta laburrez osaturiko testuan. Eta, ondoren, Loreak ekindako bidaian zehar, zenbait gertakariren ondoren itsas hondoa emakume berezi batekin egiten du topo: “–Nor zara?/ –Zure ama. Ez al zaitu ekarri hona nire usainak?/ –Bai, baina, zu desberdina zara!/ –Egia. Hemendik aurrera zeuk gura duzun lekuan aurkituko nauzu, baina beste itxura batekin.” (18-19. orr.).

Agur, Ama! lan honek maite dugun baten heriotza azaltzeko edo ulertarazteko balio digu, dolua pasatzen laguntzeko, gaur egungo gizartea eta bizitza nolakoak diren ulertzeko. Eta alde horretatik errealismo kritikoan, haurrei gizarteko kontu guztiak azaldu nahi zizkien korrante barruan, koka genezakeen istorio hau; baina errealitatetik bezala fantasiatik, fikziotik, edan dute egileek eta horrela pertsonaiak fantastikoak ditugu, “erdi lore, erdi ume” istorio errealean.

“Oker” saileko gainerako liburuetan bezala honetan ere istorioaren ikustea oso garrantzitsua da, letren tamaina, itxura eta kolorearekin jolasten da, eta irudiek –testuarekin bat egiten dutenak istorioan, narrazioa aberastuz eta osatuz– liburua albumen arlora eramaten dute. Hitzak eta irudia dira liburuko osagaiak, eta horregatik lehena, testua, dugu hain sintetikoak. Esaldi laburrak, bata bestearen ondoren, ideiak adierazteko. Eta bakar-bakarrik elkarrizketen kasuan ageri dira osatuago.

Liburu ausarta dugu, beraz, Yolanda Arrietaren eta Aitziber Alonsoren azken lan hau istorioa narratzeko moduagatik, baina baita ere, arestian aipatu bezala, aukeratu duten gaiagatik eta heriotzaren aurrean haurrak prestatzen joateko eginiko apustuagatik. ▢

Ander Manterolari elkarrizketa

Imanol Murua Uriak 60 orrialdetik gorako elkarrizketa mamitsua egin dio Ander Manterolari. 1934an Zeanurin (Bizkaia) jaio zen euskaltzale nekagaitzari buruz Muruak idatzitako lehen hitzak ondokoak dira: “Labayru Ikastegiak egin duen lana eta urratu duen bidea ez daude ulertzerik Ander Manterolak egin duen lanaren eta urratu duen bidearen berri izan gabe. Eta alderantziz, Manterola

nor den eta zer egin duen jakiteko Labayru zer den eta zer egin duen jakin behar da”.

Elkarrizketa mardulaz gain, Agustin Arrietak *Erljio sinesmenei buruz* izenburuko gogoeta egin du.

Ohikoa den moduan, beste hainbaten hausnarketa laburrak ere badira, hala nola, Xabier Gantzarain, Inaki Irazabalbeitia, Uxue Alberdi, Lionel Joly eta Josu Larrinagarenak. y



Jakin 174.
Iraila-urria. 2009.
130 orrialde.
9,95 euro.

Anek pirata izan nahi du

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek lagun handi bat bisitatu dute ospitalean. Ane du izena eta gaixo dago. Pattal egon arren pozik dagoela dirudi, pirata izatea erabaki baitu eta gainera bere ametsa bete egin da. Pirata izateko maisu ona behar da eta Anek aurkitu du pirata maisu hori: Patakon. Munduko piratarik ausartena da Patakon maisua eta eredu. Patakon alaia da, festazalea, eta inork baino hobeto daki piratez lezio ederrak ematen. y



Ane Pirata.
Mitxel Murua, Julen Tokero
Elkar-Katxiporreta.
9 euro.